

## BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

### 5048

*EBAZPENA, 2013ko azaroaren 5ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Agentziaren 2011ko enplegu publikoaren eskaintzako lanpostu hauen lan-poltsak eratzea eta langileak horietan sartzea onartzen duena: Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna, Koordinazio Teknikoko arduraduna, Lankidetzako teknikaria, eta Genero Berdintasuneko teknikaria.*

I.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpena (2011ko urtarrilaren 20ko EHAA, 13. zk.) zuzendari beraren ebazpen hauen bidez aldatua izan zen: 2011ko abuztuaren 31ko Ebazpena (2011ko urriaren 10eko EHAA, 193. zk.), 2011ko urriaren 19ko Ebazpena (2011ko urriaren 28ko EHAA, 205. zk.), eta 2011ko azaroaren 11ko Ebazpena (azaroaren 16ko EHAA, 217. zk.). Bada, ebazpen horren bidez, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzeko agindu zen, oinarri orokorrak eta espezifikak onartu ziren, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zerbitzura lan kontratudun langile gisa jarduteko bederatzi lanpostu betetzeko hautaketa-prozesuetarako deia egin zen (hemendik aurrera, EPE 2011-AVCD). Deialdi horrek honako lanpostu hauek betetzea zuen helburu: Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna; Koordinazio Teknikoko arduraduna; Lankidetzako sei teknikari; eta Genero Berdintasuneko teknikari bat.

II.– Agentziaren zuzendariaren 2012ko irailaren 12ko Ebazpenaren bidez, EPE 2011-AVCDn –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zerbitzura lan egiteko kontratuak formalizatzeko– hautatuak izan ziren langileen zerrenda argitaratu zen (2012ko irailaren 25eko EHAA, 187. zk.). Lanpostu hauek bete ziren: Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna; Koordinazio Teknikoko arduraduna; Lankidetzako bost teknikari; eta Genero Berdintasuneko teknikari bat. Hautaketa-prozedura formalki amaitu da, eta deitutako lanpostu bakoitzerako hautatutako pertsonak gainditu egin dute dagokion probaldia.

III.– EPE 2011-AVCDren hamabigarren oinarriak (I. eranskina) hau ezartzen du: «Hautaketa-prozesu bakoitza amaitzen denean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aldi batean zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erregulazio propioa ez duen bitartean, deitutako lanpostu bakoitzeko lan-poltsa osatu eta argitaratuko da, hain zuzen, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakian zehaztuta dagoen moduan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erabakian)». Bestalde, ebazpen hau eman den unean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ez dauka araubide juridiko berezirik, aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko prozesuak arautzeko. Adierazitako aurreikuspenean ezarritako bi baldintzak betetzen direnez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erabaki du honako lanpostu hauei dagozkien lan-poltsak eratzea eta horietan langileak sartzea: Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna, Koordinazio Teknikoko arduraduna, Lankidetzako teknikaria eta Genero Berdintasuneko teknikaria (EPE 2011-AVCD).

IV.– Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakian aurreikusten den araubideak (2006ko ekainaren 13ko EHAA, 111. zk.) eskatzen du alderdi formalak –eskumenei eta prozedurei dagozkienak– egokitzea; izan ere, akordio hori, 1. artikuluan ezarritakoa betetz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzuak emateko kontratatu behar diren langileen hautaketari aplikatuko zaio. Eskumenen ikuspegitik, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko gisa juridikoki eratua izan

2013ko azaroaren 20a, asteazkena

zela kontuan hartuta, eta Garapenaren Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, izapide horretarako eskumena Agentziaren beraren organoek dute, eta, zehazki, Zuzendaritzak, lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuak baitira. Prozeduraren eta aurreikuspenak gauzatzearen ikuspegitik, berriz, akordio horren aplikazioa interpretatu behar da, batetik, Agentziaren beraren izaerara egokituz (Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa), eta, bestetik, aintzat hartu nahi diren lan-poltsen bidez behin-behinean beteko diren lanpostuetara egokituz.

V.– Lan-poltsak eratu eta osatzerakoan, kontuan hartu behar dira, bakar-bakarrik, EPE 2011-AVCD-ren deialdian lehiatu eta dagozkien emaitzak izan dituzten pertsonak. Lan-poltsak osatuko dituen kolektiboan honako hauek sartuko dira: hautaketa-prozesu egokia gainditu baina hautatuak izan ez direnak.

VI.– Langileen ordezkariari ebazpen honen berri eman zaio, eta Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan ezarritakoa aintzat hartu da.

Horren ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinaren lehen oinarrian adierazten diren lan-poltsak eratzeari, betiere, dagozkion hautaketa-prozesuak amaitu ondoren.

Bigarrena.– Langileak lan-poltsa horietan sartzea, ebazpen honen eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 5a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

## ERANSKINA

Lehenengo oinarria.– Eratutako poltsak.

OPE 2011-AVCD delakoari dagozkion hautaketa-prozesuak amaitutakoan, ondoko lanpostuen poltsak eratzen dira:

- a) Planifikazioa eta Ebaluazioaren arduraduna.
- b) Koordinazio Teknikoaren arduraduna.
- c) Lankidetzako teknikaria.
- d) Genero Berdintasunerako teknikaria.

Bigarren oinarria.– Lan-poltsak osatzen dituzten kolektiboak.

Zehaztutako postuei dagozkien lan-poltsak honako hauek osatuko dituzte: haietariko bakoitzarentzako hautaketa-prozesua gainditu baina deialdian hautatuak izan ez direnak.

Hirugarren oinarria.– Lan-poltsa osatzen duten -langileen ordena finkatzea.

Ebazpen honen bitartez eratzen den lanpostuetarik bakoitzeko langileak honelaxe ordenatuko dira: OPE 2011-AVCD delakoaren oposizio-fasean eta merezimenduen fasean lortutako puntuaketak batzearen ondoriozko kalifikazioaren arabera, gehienez 23,20 puntu. Hizkuntza eskakizunari dagokionez, eta Agentziako LZnn pasatako derrigortasun-data esleituta duten lanpostuak betetzeko, EHAAn ebazpen hau argitaratzen den egunean IVAP-ek homologatu edo egiaztatutakoa hartuko da kontuan.

Laugarren oinarria.– Berdinketari buruzko irizpideak.

Ondoko irizpideak kontuan hartuz ebatziko dira berdinketa-kasuak:

- a) OPE 2011-AVCD delakoaren hautaketa-prozesuko oposizio-fasean lortutako puntuazio handiena.
- b) OPE 2011-AVCD delakoaren hautaketa-prozesuko merezimendu-fasean lortutako puntuazio handiena.
- c) Egindako zerbitzuengatik lortutako puntuazioa handiena, honako hauen arabera: dena: 0,037 puntu hileko edo hamabost egunetik gorako frakzioko. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2011ko abuztuaren 31ko Ebazpenaz onartutako deialdiko I. eranskineko 7.5.2 eta 7.5.3 paragrafoetan jasotako aurreikuspenekin bat egingo da zerbitzuen zenbaketa, maximoa 3,5 puntukoa delarik.
- d) Egiaztatutako hizkuntz eskakizuna: hizkuntz eskakizunik ez duten edo beheragoko maila batekoa dutenen gainera izango dira goragoko hizkuntz eskakizuna egiaztatutakoenak.

Hala eta guzti ere, berdinketak irauten badu –azken irizpidetat–, «G» letratik harako izen-abizen ordean alfabetikoa erabiliko da; betiere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2013ko apirilaren 8ko Ebazpenarekin bat; izan ere, ebazpen horren bidez, 2013-2014 ikasturtean zehar ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesurako zozketaren emaitza ematen baita argitara.

Bosgarren oinarria.– Informazioa eta kontsultak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da argitara ebazpen hau, eta bai prozesuko iragarki-taulatzat hartuko diren ondoko bulegoan eta helbide elektronikoan. Horietan, bestalde, poltsak osatzen dituzten pertsonen behin betiko zerrendak emango dira argitara.

– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Nafarroa kalea 2 (Lehendakaritza) 01007, Vitoria-Gasteiz (degaituentzako sarbide egokitua).

– Helbide elektronikoa: [www.elankidetz.euskadi.net](http://www.elankidetz.euskadi.net)

Seigarren oinarria.– Lan-poltsak osatzen dituztenen zerrendak.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaritzak ofizioz integratuko eta orde-natuko ditu poltsetariko bakoitza osatzen duten pertsonak, bigarren eta hirugarren oinarrietan jasotako irizpideekin bat etorriaz; eta, halaber, poltsetariko bakoitza osatzen dutenen zerrendak emango ditu argitara, ebazpen honen 10. oinarrian zehaztutako epearen barruan.

2.– Poltsetariko bakoitzean honako hauek ere jaso dira:

a) Poltsa osatzen dutenen izenak eta abizenak.

b) Poltsetako parte direnen ordena-zenbakiak.

c) Hirugarren oinarrian aurreikusitakoa aplikatuaz lortutako puntuazioa.

d) EHAAn ebazpen hau argitaratzen den egunean, IVAP-ek egiztatutako edo homologatutako hizkuntz eskakizuna.

e) Disponibilitate guztizkoa edo partziala, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Erabakiko 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

f) Poltsaren egoera: lanean, jarduteko prest, aldi baterako bajaa edo behin betikoan, Jaur-laritzaren Kontseiluak maiatzaren 30ean hartutako Erabakiko 8. etik 12. erako artikuluetan aurreikusitakoarekin arabera.

Zazpigarren oinarria.– Poltsak osatzen dituztenak.

Poltsa osatzen dituztenei disponibilitate osoa errekonozituko zaie, eta edozein iraupeneko lan-eskaintzak jasoko dituzte. Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaz lan-poltsak arautzen dira. Bada, erabaki horren 6. artikuluekin bat etorriaz, pertsona horiek poltsetan integratzen direnean edo geroago egin dezakete disponibilitate partziala errekonozitzearen aldeko aukera.

Zortzigarren oinarria.– Datu pertsonalen fitxategia.

1.– Lan-poltsak osatzen dituztenei buruzko informazioa fitxategi baten jasoko da; eta fitxategi hori bakarrik honetarako erabiliko da: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zerbitzurako langileak aldi baterako kontratatuzko. Fitxategi horiek honako lege hauek errespetatuaz erabiliko dira: Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea; Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia da halako fitxategiaren arduraduna, eta agentzia horretako zuzendariaren aurrean baliatuko dira sarbide-, zuzenketa- aurka egite- eta indargabetze-eskubideak: Nafarroa kalea, 2; 01007 Vitoria-Gasteiz.

Bederatzigarren oinarria.– Indarrean jartzea.

1.– Lan-poltsak osatzen dituztenen zerrendak argitara emanen dira aipatu iragarki-tauletan eta helbide elektronikoetan, ebazpen hau argitara ematen denetik harako hamabost eguneko epearen barruan. Argitalpen horri uko egiteak poltsetatik kanporatzea dakar.

2.– Lan-poltsak osatzen dituztenen behin betiko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik hara, aipatu lanpostuak betetzeko, lan-poltsetako langileen artean egingo da aldi baterako zerbitzuak egiteko langileen hautaketa.

Hamargarren oinarria.– Ordezko arauak.

Sortzen diren lan-poltsak eratzeari eta kudeatzeari dagokienez, oinarri hauetan arautzen ez dena, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaz eraenduko da.